

P2P maileguak

Nire banketxea izan nahi al duzu?

Emaidazu dirua. Mailegu bat. Bai, zeuk. Negoziatuko ditugu interesak, baina zeurekin egin nahi ditut negozioak. Izan zaitez nire banketxea. Orain aukera duzu, sos batzuk aurreztuta badituzu. Ezetz, diru premian zabiltzala? Zeuri ere interesatuko zaizu P2P bankuen asmakizuna. Musikaren elkartrukearekin lotu izan den kontzeptua finantza arlora iritsi da. Dirua elkartrukatzeko sare sozialak sortzen ari dira Interneten. Banketxei erronka jotzeko ordua da.

GORKA BEREZIARTUA

“**MAILEGU HAU ERABILIKO DUT...** interes altuko kreditu txartelen zorrak kitatzeko eta erosi dudan gela bakarreko etxea handitzeko: nire ahizpari lagundu behar diot bere bi umeekin, dibortzio arriskutsu bati aurre egin behar diolako. Beraz, nire gela bakarretik hiru gelako etxea izatera pasa nahi dut”. Horiek dira Prosperreko (www.prosper.com) 278370 zerbaki-dun erabiltzailearen arrazoiak diru eske etortzeko. Bere izenik ez dakigu, baina bi argazki jarri ditu mailegu eskariarekin eta horrela jakin dugu ilehoria dela. 12.000 dolar (8.200 euro inguru) behar ditu eta oraingoz ez doakio batera gaizki: behar zuen diruaren %62 betetzeko moduko eskaintzak jaso ditu.

Dirua pertsonen artean mailegatzeko aukerak ugaritzen ari dira azkenaldian Interneten. Bitartekaririk gabeko sistemak dira, musika elkartrukearako erabiltzen diren P2P sareen (eMule adibidez) antzekoak. Abantaila berriak eskaintzen dizkiote krisi garaioan diru premian dabilenari: interes tasa negoziatzeko parada, finantza erakunde batekin aritu beharrean pertsonekin tratua egiteko aukera eta taldeka, kon-



fiantzazko lagunekin sosak eskatu ahal izatea, itzultzeko orduan laguntza edukitzeko.

Dirua mailegatzeko prest dagoenak ere negozio aukera berriak ditu. Nabarmenena beharbada, edozein pertsona bihur daitekeela banketxe, eta interesekin diru pixka bat irabazi. Nola litekeen? Mailegu osoa uzteko adina diru izatea ez delako beharrezkoa. Etxea handitu nahi duen ilehoriari 50 euro eskain diezazkiokezu, ez duzu zertan eskura eduki bere

diru premia aseko duen kopuru osoa. Edozein gauza salerosteko erabiltzen den eBay atariaren konparatu dute Prosperren funtzionatzeko modua, enkante bidezko sistema erabiltzen duelako. Eskaria egiten duenak zenbat diru behar duen esaten du, eta gehienez zein interes ordaintzeko prest dagoen. Hortik aurrera, erabiltzaileak eskaintzak egiten hasiko zaizkio.

Demagun...

... 3.000 euro behar dituzula —ez dizugu galde-
tuko zertarako—. Bueltan gehienez %3ko inter-
eres tasa ordaintzeko prest zaude. Has dadila
enkantea. Erabiltzaile batek 1.000 euro eskaini
ditu %2ko interesarekin eta zerrendako aurre-
neko postuan jarri da. Bigarren erabiltzaile bat
azaldu da eta beste 1.000 euro jarri ditu mahai
gainean, baina %1eko interesean. Bera da sail-
kapeneko burua orain, zuretzako eskaintzarik
onena egin duelako. Hirugarren keinua: beste
1.000 euro, oraingoan %0,5ko interesean.
Behar duzun diru kopurua hiru eskaintzok
osatu duten arren, oferta berriak egin ahal
izango dizkizute oraindik. Zuk erabaki dezake-
zu zenbat denboraz luza daitekeen enkantea:
hiru, bost, zazpi edo hamar egunekoak dira
Prosperrek baimentzen dituen epeak. Edonola
ere, jaso dituzun proposamenekin mailegua
osatuta baldin badago edozein unetan itxi
dezakezu eskaintza berriak egiteko aukera.
Behin zerrenda itxita, onenetik txarrenera
ordenan jarriko dira, interes tasa baxuena
eskaini duenetik altuenera, eta maileguaren
kopurua betetzen dutenek bakarrik utziko
dizute dirua. Denen portzentajeen batezbeste-
koa egin eta akabo: mailegu bakarria ordaindu
beharko duzu.

3.000 euroko beharra asetzeko
jaso dituzun hiru eskaintzak ego-
kiak iruditu zaizkizu. %2, %1 eta
%0,5eko interes tasak eskaini diz-
kizutenez, hiruren batezbestekoa
izango da ordaindu beharko duzun
interesa, %1,16 alegia. Prosperrek
ordaindutako mailegu bakoitzeko
%1 kobratuko dizu; eskaintzaileei berriz, urte
osoan interesekin irabazi duten diruaren %0,5
eskatuko die.

Britainia Handiko Zopa

Prosper AEBetan sortu zen 2006an. Urtebete
lehenago prestatu zuten Britainia Handian
Zopa (www.zopa.com). “Agur banketxei,
kaixo mailegu gizatiarragoi” dio profeta
baten moduan enpresaren Interneteko atariak.
Prosperren antzera funtzionatzen du, diferen-
tzia bakarria erabiltzaileek zerbitzuari ordaindu
behar dioten portzentajea da. Zopak %0,5
kobratzen die truke bakoitzeko, bai dirua eska-
tzen dutenei, baita eskaintzen dutenei ere.

MP3ak bezala dabil dirua munduan

Prosper eta Zopa izan dira hanka erreka uretan sartzen
ausartu diren lehenbizikoak, baina eredu itasosoa bezain zabala
bihurtzen ari da. Hona munduko beste hainbat lekutan zabaldu
diren P2P mailegu zerbitzuak:

- ✓ IOU Central (Kanada): www.ioucentral.ca
- ✓ Partizipa (Espainia): www.partizipa.com
- ✓ MyC4 (Danimarka): www.myc4.com. Webgune hau
negozioa izateaz gain bestelako helburuekin sortu dute. Maile-
gu txikiak bilatu nahi ditu Afrikako herritarrek euren enpresak
abian jar ditzaten.
- ✓ Boober (Holanda): www.boober.nl
- ✓ Smava (Alemania): www.smava.de
- ✓ Ppdai (Txina): www.ppdai.com

Koilarakada txikiagoak hartuz jatea ere posi-
ble da banku mota honentzat.

Oraindik dirua Internet bidez kudeatzera
ohituta ez dagoen gizartean zalantza nagusi-
tzen dira ordea: zer gertatuko litzaidake dirua
maileguan utzi eta itzuliko ez balidate? Bere
izena ere ez baldin badakit, nork ziurtatuko dit
dirua utzi diodan pertsona fidatzekoa dela?

P2P banku arrakastatsuenek antzeko meka-
nismoa erabiltzen dute euren bezeroak sailka-
tzeko: dirua eskatzera hurbiltzen denaren finan-
tza datuak ikertzen dituzte. Ondotik sailkatu
egiten dute, bere ordaintzeko gaitasunaren ara-
bera. Prosperren sailkapenean AA mailak ema-
ten du ziurtasun handiena, eta HR mailako nor-
baiti dirua uztea berriz, arrisku handitan sartzea
da —hortik letrak, ingelesez *High Risk*—.

Mailegu eske hurbiltzen denaren zalantza
argitzen errazagoa da: finkatutako
interesarekin itzuli beharko du
utzi dioten dirua, adostutako
epean. Horretan pertsonen arteko
maileguak ez daude oso urrun
ohiko banketxeen eredutik. Inork
ez duela dirua erregalatzen alegia.

Demagun 3.000 euro behar
dituzula eta bueltan gehienez %3ko
interesa ordaintzeko prest zaudela.

Has dadila enkantea

Bertan Bilbao (Vizcaya bankua)

P2P mailegu sistema fidagarria dela esateko
arrazoi pisuzkoena Francisco Gonzalez BBVA
bankuko zuzendariak eman du. Otsailaren 3an
Espainiako *El País* egunkarian *Internet, espazio
berri bat pertsonentzat* izeneko artikuluan Prosper
eta Zoparen inguruan hitz egin zuen. “Mota
honetako agenteek etorkizuneko finantza in-
dustria dominatuko ote dute?” galdetu zion be-
re buruari. Bere iritzia: ez. Orduan, zergatik
dauka begiz jota 150 urteko banketxeak sare
sozialen bidez eraiki den mailegu sistema? Gon-
zalezek uste du abantaila lehiakorra ohiko ban-
kuena dela, baina hamaika ikusteko jaiok gara.
Norbaitek hamabi eskaini al ditu? ■